

SAN TELMO MUSEOA PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN 2019



SAN TELMO MUSEOA: 2019ko PROGRAMAZIOA

ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

ERAKUSKETA ARETOAK

HERIOTZA. ANTE LA MUERTE

Martxoak 8 – Maiatzak 26

San Telmo Museoak antolatutako eta sortutako erakusketa

Erakusketa honen helburua da publikoa heriotzaren fenomenora gerturatzea; zehatzago esanda, gizakiak heriotzari aurre egiteko dituen eta eduki dituen moduetara hurreratzea. Gonbidapena da tabua den -nahiz eta gizakiaren berezko ezaugarria izan- gai baten inguruan hausnarketa egiteko.

Akaso, heriotza tabua da gure modernitatean arrazionalismoaren, sekularizazioaren eta indibidualismoaren arteko nahasketak eramaten gaituelako hura ezerezarekin lotzera edo norbanakoaren osotasuna galtzera; edo agian, horrekin batera, medikuntzaren eta teknologiaren garapenak bultzatzen gaituelako heriotza aurrez aurre begiratu beharrean utopian babestera geure burua, betiereko hilezkortasunaren edo gaztetasunaren bilaketa zaharberrituz.

Erakusketak arazoaren diziplina anitzeko ikuspegia emango du, gure begirada aberastuz hala arlo zientifiko ezberdinetako ekarpenekin -Historiatik Antropologiara, Medikuntzatik, Teologiatik eta Arkeologiatik igaroz-, nola arlo artistikoetakoekin -ekarpen piktorikoak, literarioak, argazkilaritzakoak edo zinemagintzakoak bilduz-.



12544n1

HELLO, ROBOT. DISEINUA GIZAKIA ETA MAKINAREN ARTEAN

Ekainak 22 - Irailak 29

Vitra Design Museum

Egun hiri europar ezberdinetan ibilbidea egiten ari den erakusketak robotek gure egunerokoan duten presentzia erakusten du, eta diseinuak duen rol erabakiorra. Objektu aukeraketa zabal baten bidez erakusten da zein esparrutara iritsi diren robotak, eta non egongo diren, epe laburrean, gisa honetako diseinua duten objektuak.



Hello, Robot-ek aztertzen du gure harremana teknologia berriekin eta, aipatzen ditu horiek sortzen dituzten aukerak eta erronkak; hala, norbanako bezala nola gizarte bezala aurre egin beharrekoak. Agerian jartzen ditu gaur egun sortzen ari diren galdera etiko eta politikoak robotikan gertatzen ari diren aurrerapen teknologikoen harira, eta erakusten ditu galdera horien erantzunak maiz izaten dituzten kontraesanak.

Komisarioa: Amelie Klein

SISTEMEN DISEINUA: ULM ESKOLA ETA BRAUNen DISEINUA

Urriak 26 - 2020ko urtarrilak 12

MUGAK Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienala, San Telmo Museoa

Objektu aukeraketa anitz baten bidez, horietako asko gure bizitzetan oso presente egon direnak, erakusketak Hochschule für Gestaltung Ulm-eko (Ulm-eko Diseinu Goi Eskola) metodologia erakutsi eta aztertzen du. Eskola 1953an zabaldu zen hiru pertsona hauen zuzendaritzapean: Max Bill margolari eta arkitektoa, Otl Aicher diseinatzaile eta eskultorea, eta Inge Scholl ekintzaile politiko eta kulturala. Ulm-eko eskolak Weimar-eko, Dessau-ko eta Berlingo Bauhaus eskolaren jarraitutasuna eta garapena ordezkatu zuen. 1955 eta 1960 artean Braun enpresak, Dieter Ramsen zuzendaritza artistikopean, Ulm-eko Eskolarekin lankidetzan aritu zen proposamen estetikoak XXI. mendeko diseinura eramango zuen produktu batzuen diseinuan.

Komisarioak: Guillermo Zuaznabar, Neus Moyano.

KIPUTZ. HISTORIAURREKO LEIZE HILGARRI BAT

Azaroak 16 - 2020ko otsailak 9

San Telmo Museoa, Gordailua

Kiputz Mutrikun kokatutako leize bat da, orain dela 20.000 urtetik orain dela 14.000 urtera bitarte animalientzako tranpa natural bihurtu zena, bertan aurkitutako milaka hezur puskek frogatzen dutenez. Ohiz kanpoko aurkikuntza horri esker, penintsula osoko elur-orein (23) eta bisonte (18) multzo garrantzitsuenak berregiteko aukera izan da, baita 48 orein berriz osatzeko aukera ere.

Pieza horiek izango dira erakusketaren oinarria. Dagoeneko desagertu den fauna bat aurkezteaz gain, Euskal Herria estepako paisaia gisa erakutsiko da, azken glaziazioaren amaieran.

Gordailua Gipuzkoako ondare-zentroak (bildumak bertan gorde dira) eta San Telmo Museoa elkarlanean garatu dute proiektua, aztarnategia induskatu duen Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean.



LABORATEGIA

ARZAK

Martxoak 23 - Ekainak 16
San Telmo Museoa

Erakusketa hau 1879tik XXI. mendera arteko sukaldaritza-bidaia da, garrantzia kultural handiko elementu baten bidez: mahaia, edo, zehatzago esanda, Arzak familiaren mahaia. Mahaia, sakon errotutako sentimenduaren eta Arzak familiaren sinbolo gisa, urte hauetan zehar, beren esentzia gastronomikoa partekatu eta transmititzen den lekua.

Erakusketak bilatzen du bertako eta nazioarteko gastronomiaren baloreen inguruan hausnarketa egitea, gure garaiko markarik entzutetsuenaren, zintzoenaren eta abangoardistenaren bidez.

Komisarioa: Storytelling Studio

HAMABOSTALDIK 80 URTE

Uztailak 6 - Irailak 1
Musika Hamabostaldia, San Telmo Museoa

Musika Hamabostaldiaren 80. urteurrena ospatzeko eta jaialdiaren ibilbidea birpasatzeko erakusketa. Erakusketak, modu atsegin eta dibulgatzailean, Donostiako hiriaren ispilu gisa jaialdia izandako bilakaera erakutsiko du. 1939. urtean Gerra Zibilean lehenengoz ospatu zenetik gaur egun arte. Erakusketa interesgarria musikarekiko interesa duten eta ez dutenentzako.

MALKOVICH, MALKOVICH, MALKOVICH: ARGAZKILARITZAREN MAISU-MAESTREI OMENALDIA.

Sandro Miller

Irailak 14 - Abenduak 8
diChroma photography

Erakusketa honek argazkilaritzaren historiari omenaldia egiten dio argazkilari baten jenioaren eta bere musaren bidez. 2013an Sandro Millerrek erabaki zuen proiektu bat garatzea bere ibilbideari forma ematen lagundu zioten gizon-emakumeak omentzeko. Argazkilaritzako irudi ikonikoak aukeratu zituen eta John Malkovich aukeratu zuen horiek emulatzeko.

Piezek, txuri-beltzeko 61 irudi, besteak beste, erakusten dute Irving Pennek Truman Capoteri izkina batean egindako argazkia edo Bert Stern-ek Marilyn Monroeri egindakoa.

John Malkovich XXI. mendeko aktore onenen artean dago. Erakusketa honetan agerian geratzen da bere gaitasun kamaleonikoa, besteak beste, Albert Einstein, Che Guevara, John Lennon edo Andy Warhol-en eraldatuz.

PROIEKTUAK

MUSEO BIKOITZA

Museo Bikoitza aurten, 2018an, abian jarritako aldizkako esku-hartzeen programa bat da, Asier Mendizabalek egindako proposamenari jarraiki. Museoaren bildumaren eta kontakizun museografikoaren hainbat berrirakurketa ahalbidetzea da helburua, ingurune hurbileneko artisten eskutik. Ibon Aranberri da lehen edizio honetan gonbidatutako artista eta 2019an amaituko du bere lana. Lan horren emaitza urtebetez egongo da erakusketa-programaren barruan, eta azkenik museoaren arte-bildumari gehituko zaio. Aldi berean, 2019an jarraitutsauna emango zaio proiektuari, artista berri bat gonbidatuz.

ERAKUSKETA IRAUNKORRA

Erakusketa iraunkorra osatzen jarraitzeko 2018an zehar **artzaintzaren inguruko ikus-entzunezkoa** landu du museoak, besteak beste, Fermin Leizaolarekin lankidetzan. 2019an bideoa aurkeztu eta erakusketan jarriko da gai horretaz hitz egiten den atalean. Horrekin lotuta, Aste Santuan artzaintzaren inguruko jarduerak antolatuko dira.

Second Canvas aplikazioaren garapenaren bigarren faseari ekingo diogu baita ere 2019an, Euskal Artearen aretoko obra aukeraketa batekin, Michelin Funfazioarekin lankidetzan.

San Telmo pil-pilean bisitak 2019an ere eskainiko dira, Juan Mari Arzaki lotutako erakusketaren inguruan.

URGULL

Urgull mendiko Historiaren Etxean *Donostiari begira* erakusketa dago. Urtero bezala neguan itxita egon ondoren, udaberria iristearekin batera, martxoaren 21ean, zabalduko ditu atea abenduko zubira arte. Gainera, Aste Santuko eta udako oporretan haurrentzako programazioa atonduko du museoak Cristina Enea Fundazioarekin eta Donostiako Udaleko Liburutegi Sarearekin elkarlanean.

EUSKARA

Zeharreko lan ildo honek euskara gure kulturaren berezko ondare berezi gisa sustatzea du helburu. Horretarako Euskaragilerekin, Donostiako Euskara Zerbitzuarekin, Bagera Euskaltzaleen Elkartearekin, euskaltegiekin eta bestelako elkarteekin lankidetzan jarraituko du museoak.

ZIKLOAK ETA JARDUERAK

ERRONKAK

San Telmo Museoa euskal gizarteari buruzko museo bihurtu zenez geroztik, Erronkak izeneko programazio-ildoak garatu dugu, eta gaur egungo gaien gaineko hausnarketa, elkarrizketa eta eztabaida sustatzen duten proiektuak eta ekimenak bultzatzea da ildo horren helburua. Bost gai nagusiak honako hauek dira: Europa, generoa, iraunkortasuna, kulturartekotasuna eta Giza

Eskubideak. Baina interesgarriak izan daitezkeen gai gehiago ere sar daitezke eta, 2019an, zehazki, aldi baterako bi erakusketekin lotutako jarduerak ere programatuko ditugu: heriotza eta robotak. Hori lortzeko, topaguneak antolatu ditugu eta, aldi berean, gure inguruko erakunde eta elkarteek sortutako ekimenak hedatzeko eta babesteko plataforma ere izan gara, betiere gure helburuekin bat datozen helburuak baldin badituzte; hartara, errazagoa izan da proiektuak egitea eta jakintza nahiz baliabideak partekatu ditugu. Donostia Kulturako erakunde eta programekin elkarlanean jarduten dugu ohiko moduan, hala nola, Literaktum, Liburutegi Zerbitzua eta Giza Eskubideen Zinemaldia; baina baita kanpokoekin ere: Globernance, Jakiunde, Cristina Enea, Zinemaldia, UPV / EHU, Udalaren Lankidetzaren Departamentua, GKEak, Ankulegi eta Baketik, besteak beste.

-**Iraunkortasuna: *Agora K2050***. Cristina Enea fundazioarekin. Hitzaldi, mahai-inguru eta eztabaiden saioak hileroko. Programa honen helburua galderak egitea da, egun bizi dugun errealitateari buruz, gure produzitzeko, kontsumitzeko eta ugaltzeko moduei buruz, etorkizuneko belaunaldien bizitza bermatuta eta planetaren mugak aintzat hartuta.

-**Europa: *Europar Elkarrizketak***. Globernance Gobernantza Demokratikoaren Institutuarekin: urtean zehar Europar Elkarrizketen saio ezberdinak egingo ditugu, eta gai nagusiak Europar Batasunaren erronkak izango dira.

-**Giza Eskubideak**: Donostiako Udaleko Lankidetzaren Atalarekin eta Baketikekin hainbat programa burutzen ditugu urtean zehar, Giza Eskubideen inguruko alderdi ezberdinak jorratzeko.

ELKANO ZIKLOA: 2019an ere museoak ziklo honi eutsiko dio, izan ere, Juan Sebastián Elkanoren mundu biraren hasieraren urteurrena beteko den urtean, zikloak gertakari haren testuingurua hobeto ezagutzen laguntzeko helburua du. Salbuespenak salbu, hileko lehen asteartean adituek Elkanok munduari bira eman zion garaiko nabigazioa, gizartea, eta gaur egunera arte iritsi diren ondorioak aztertzen dituzte, ikuspuntu ezberdinetatik.

XVI. ARKEOLOGIA ETA 40. ETNOGRAFIA JARDUNALDIAK antolatuko ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak museoarekin lankidetzarekin. Lehenak urtarrilaren amaierara aurreratuko dira *Arrikrutzeko lehoia* (2018ko azaroaren 15etik zabalik dagoena) erakusketarekin bat egiteko, izan ere, gaiaren aldetik ere lotura izango dute; bigarren jardunaldiak, ohi bezala, azaroan izango dira.

HILEKO OBRA zikloan hileko lehen igandeetan museoaren bildumako artelanen inguruko hitzaldiak antolatzen ditu San Telmo Museoaren Lagunen Elkarteak, museoaren laguntzarekin.

LIBURUTEGIA ETA DOKUMENTAZIO ZENTROArekin lotutako jarduerak: **Gabriela Cendoyaren argazki-liburuaren bilduma** katalogatzeko eta eskura jartzeko lanarekin jarraitzeaz gain, tailerrak, aurkezpenak, hitzaldiak eta argitaletxeen topaketa bat egingo dira 2019an zehar. Honetaz gain, museoak bosgarren aldiz egingo du bat **Artista liburuaren** inguruko topaketekin eta urrian erakusketa eta jarduerak antolatuko ditu Arteliburu 21 Elkartearen lankidetzarekin.

EBENTU ETA JAIALDIAK

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA: maiatzaren 18an **Museoen Nazioarteko Eguna** da, eta urtero bezala, San Telmo Museoa bat egingo du egunarekin, programazio berezia antolatuz egun horren bueltan.

JAIALDIAK: uda **jaialdi garaia** da Donostian eta museoan; izan ere, hiriko jaialdi entzutetsuenen agertoki bihurtzen baita San Telmo. **Heineken Jazzaldian** kontzertuak eta hitzaldiak antolatuko ditugu, **Musika Hamabostaldian**, ohi bezala, lankidetzaren estua izango du museoak, besteak beste, kontzertuak antolatuz, eta aurten gainera, erakusketa ere izango dugu jaialdiaren 80. urteurrena ospatzeko. Azkenik, **Zinemaldian** proiektzioak hartuko ditu San Telmok.

SAN TELMO GAUAK

San Telmo Gauak udako museoak antolatzen dituen jarduerak dira, unean-uneko erakusketekin lotura dutenak. Aurten bi eskainiko dira, bat uztailean *Hello Robot* erakusketaren programazioaren barruan, eta bestea, abuztuan *Hamabostaldian 80 urte* erakusketaren harira. San Telmo Gauak udako bi egunetan izaten dira eta iluntzetik gauerdia arteko iraupena izaten dute; horietan erakusketak zabalik egoteaz gain, taberna zerbitzua, musika eta jarduera osagarriak egoten dira, doako sarrerarekin.

MUSIKAGILEAK

2012 urtetik dugun lankidetzaren esker euskal musikagile edo interpretatzaileen musika eskaintza du museoak. Baina hori baino egitasmo zabalagoa da hau, sorkuntza prozesua bere osotasunean lantzen baitu, sorkuntzatik jendaurrean eskaini arte.

BITARTEKARITZA JARDUERAK

FAMILIENTZAKO TAILERRAK

Familientzako tailerrak eta haurrentzako jarduerak museoaren ildo egonkortuetako bat dira eta euren helburua da erakusketa iraunkorrean edo aldi baterako erakusketetan lantzen diren gaiak abiapuntu hartuta haurrek eta familiek, elkarrekin, sormena lantzea. Ikasturtearekin batera irekitzen da programa eta Aste Santuarekin batera, amaitu. 2019ko apirilera artekoak aurkeztuak daude dagoeneko, baina aipatzekoak dira **Gu mara-mara** tailerrak, eskaintza urria duen adin tarte baterako pentsatuak: 0-4 urte arteko haurrak. Oso harrera ona dute publikoarengan eta 2019an ere programatuko ditu (lehenak, otsailean).

BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuak erakusketetan hobeto murgiltzea eta gaien inguruko irakurketa ezberdinak ezagutzeko ahalbidetzen dute.

-**Plus 55 Kultur Gidak** bisita gidatuetan 55 urtetik gorako pertsonak sakon ezagutu dezakete erakusketa iraunkorra 6 ibilbideren bidez. Ikasturteen egutegiarekin, asteartero (11:00etan eta 18:00) eskaintzen dituzte doan bisita gidatu hauek 55 urteko gidariek. Helduen Hitza elkarteak laguntzaile duela antolatzen ditu museoak.

-**Zeharkako begiradak** bisita gidatu subjektiboak dira aldi baterako erakusketetara edo erakusketa iraunkorrera egiten direnak. Horietan adituek edo landu nahi den gaiari irakurketa berezia eta pertsonala egingo dioten pertsonak egiten dituzte gida lanak. Bisita hauek ere doan izan ohi dira.

-Aldi baterako erakusketa nagusiarekin lotuta **bisita gidatu programatuak** antolatzen ditu museoak. Eskaintza errotua da hau, eta asteartero eta larunbaterako eskaintzen da (11:00 etan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz) erakusketa zabalik dagoen denboran. Bisita hauek doakoak dira erakusketarako sarrera eskuratuta.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

Hezkuntza arloari dagokionean museoak 2017/18 ikasturtean aurkeztutako hezkuntza-eskaintza berria garatzen jarraituko du, hobekuntzak aplikatuz zerbitzuaren kalitate onena eskaintzeko.

Aipatutako erakusketa, jarduera, proiektu eta ebentuek guztietaz gain, museoak bere berezko duen helburua ere lantzen du beti, **ondarea sortu, kontserbatu, ikertu eta zabaltzea**, alegia. Horregatik, horren ikusgarri ez diren beste lan batzuek ere aipatzea garrantzitsua da:

BILDUMAK HANDITZEA: bilduma eskuratze politika aktiboa planteatzen da, bai dohaintza gisa, bai eta erosketa gisa ere, euskal gizartearen modu egokian irudikatuko duen funtsa izateko.

KONTSERBAZIOA / ZAHARBERRITZEA:

Zaharberritzearen arloak lan nagusi gisa **arma bildumaren kontserbazioa eta zaharberritzea** izango du. Lan honen lehen pausoak jada 2018an eman dira, jineta ezpataren ikerketa eta zaharberritzearekin. Pieza hau XV. mendekoa da eta museoaren bildumetako objektu berezien artean dago. Lanak, beraz, jarraipena izango du, Broutinen arma multzoarekin eta piskanaka bilduma osoarekin burutuko da (391 pieza).

Ehungintzarekin eta argazkigintzarekin lotutako piezen gainean egindako lanari ere jarraipena emango diogu eta, Urgullen, bestalde, Graffiti-en aretoaren zaharberritzeari ekingo zaio eta mendian berritutako hainbat kanoi jarriko ditugu.

DOKUMENTAZIOA / IKERKETA:

Azken urteotan egiten ari garen XIX. eta XX. mendeetako argazki eta arte ederretako bildumen dokumentazio lanarekin jarraituko dugu.

Museoaren egingo diren aldi baterako bi erakusketen harira egindako ikerketen emaitzak direla eta, heriotzari buruzko eta XVIII. mendeko jantziei buruzko argitalpenak egingo ditugu. Erronkak bildumari ere jarraipena emango diogu 2019an ale berriak argitaratuz.

SAN TELMO MUSEOA: PROGRAMACIÓN del 2019

EXPOSICIONES TEMPORALES

SALAS DE EXPOSICIÓN

HERIOTZA. ANTE LA MUERTE

8 de marzo – 26 de mayo

Exposición organizada y producida por San Telmo Museoa

Esta exposición pretende acercar al público al fenómeno de la muerte y, más concretamente, al de las actitudes con las que el ser humano ha enfrentado y enfrenta el fenómeno de la muerte. Invita a reflexionar sobre un tema que -aun siendo inherente a la condición humana- resulta tabú.

Es un tabú quizá porque, en nuestra modernidad, una mezcla de racionalismo, secularización e individualismo nos conduce a identificar la muerte con la nada, o mejor con la pérdida integral de cada totalidad individual. Y quizá porque, a la vez, el progreso médico y tecnológico nos impulsa no tanto a mirarla de frente como a refugiarnos en la utopía, remozando la sempiterna búsqueda de la inmortalidad o de la eterna juventud.

La exposición ofrecerá una visión interdisciplinar del problema, enriqueciendo nuestra mirada con las diversas aportaciones de diferentes ámbitos científicos -de la Historia a la Antropología, pasando por la Medicina, la Teología y la Arqueología- y artísticos -recogiendo aportaciones pictóricas, literarias, fotográficas o cinematográficas-.



HELLO, ROBOT. EL DISEÑO ENTRE EL HUMANO Y LA MÁQUINA

22 de junio – 29 de septiembre

Vitra Design Museum

La exposición, que se encuentra en itinerancia por diversas capitales europeas, muestra la presencia de los robots en nuestra vida cotidiana y el rol decisivo del diseño. Una amplia variedad de objetos ilustran las áreas donde ya podemos encontrar robots hoy en día y donde la presencia de este tipo de diseños es inminente en un futuro próximo. La muestra analiza nuestra



relación con las nuevas tecnologías y habla sobre las oportunidades y desafíos a los que hacemos frente tanto a nivel individual como de sociedad. Plantea reflexionar sobre las interrogantes éticas y políticas que surgen hoy considerando los avances tecnológicos en la robótica, y muestra las contradicciones que a menudo contienen las respuestas a esas preguntas.

Comisaria: Amelie Klein

DISEÑO DE SISTEMAS: LA ESCUELA DE ULM Y EL DISEÑO DE BRAUN.

26 de octubre – 12 de enero de 2020

MUGAK Biental Internacional de Arquitectura de Euskadi, San Telmo Museoa

A través de una amplia muestra de objetos, muchos de los cuales han formado parte de nuestra vida cotidiana, la exposición analiza la metodología de la Hochschule für Gestaltung Ulm (Escuela Superior de Diseño Ulm). La Escuela Superior de Diseño de Ulm se inauguró en 1953, bajo la dirección del pintor y arquitecto Max Bill, el diseñador y escultor Otl Aicher y la activista política y cultural Inge Scholl. La escuela de Ulm representó la continuidad y el desarrollo de la Bauhaus de Weimar, Dessau y Berlín. Entre 1955 y 1960 la firma Braun, bajo la dirección artística de Dieter Rams, colaboró con la Escuela de Ulm el diseño de unos productos que trasladarán su propuesta estética al diseño siglo XXI.

Comisariado: Guillermo Zuaznabar, Neus Moyano.

KIPUTZ. UN ABISMO LETAL EN LA PREHISTORIA

16 de noviembre – 9 de febrero de 2020

San Telmo Museoa, Gordailua

Kiputz es una sima ubicada en Mutriku que se convirtió en una trampa natural en la que fueron cayendo los animales desde hace 20.000 años hasta 14.000; la excepcionalidad que constituyen los miles de fragmentos óseos encontrados han permitido reconstruir los conjuntos más importantes de toda la península de renos (23) y bisontes (18), así como de 48 ciervos.



La muestra de estas piezas será la base de esta exposición que además de hablar de una fauna ya desaparecida, mostrará el País Vasco con un paisaje estepario justo en el final de la última glaciación.

El proyecto se desarrolla conjuntamente entre Gordailua, Centro de Patrimonio de Gipuzkoa (donde se conservan las colecciones) y San Telmo Museoa, en colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi, que ha excavado el yacimiento.

LABORATEGIA

ARZAK

23 de marzo – 16 de junio

San Telmo Museoa

Esta exposición es un viaje culinario desde 1879 hasta el siglo XXI a través de un elemento clave cultural: la mesa; más concretamente, la mesa de la familia Arzak. La mesa como símbolo del sentimiento de arraigo y de la familia Arzak a lo largo de estos años, lugar donde se comparte y transmite su esencia gastronómica.

La exposición pretende reflexionar sobre valores de la gastronomía nacional e internacional a través de una de las marcas más reputadas, honestas, y vanguardistas de nuestro tiempo.

Comisariado: Storytelling Studio

QUINCENA MUSICAL. 80 AÑOS.

6 de junio – 1 de septiembre

Quincena musical, San Telmo Museoa

Exposición que conmemorará el 80 aniversario de la Quincena Musical donde se repasará la trayectoria del festival. La exposición mostrará de un modo cercano y divulgativo la evolución del festival como espejo de la ciudad de San Sebastián, desde su nacimiento en 1939 en plena Guerra Civil hasta nuestros días. Interesante tanto para las personas aficionadas a la música como para las que no lo son.

MALKOVICH, MALKOVICH, MALKOVICH: HOMENAJE A MAESTROS DE LA FOTOGRAFÍA.

Sandro Miller

14 de septiembre – 8 de diciembre

diChroma photography

Esta exposición rinde homenaje a la historia de la fotografía a través del genio de un fotógrafo y su musa. En 2013 Sandro Miller decidió desarrollar un proyecto para homenajear a los hombres y mujeres cuyas fotografías le habían ayudado a dar forma a su carrera. Seleccionó imágenes icónicas de la fotografía y eligió al actor John Malkovich para emularlas.

Las piezas, 61 imágenes en blanco y negro, incluyen, entre otras muchas, la foto de Irving Penn a Truman Capote en una esquina o la foto de Bert Stern a Marilyn Monroe.

John Malkovich es considerado uno de los mejores actores americanos del siglo XXI. En esta exposición demuestra su capacidad camaleónica transformándose, entre otros en Albert Einstein, Che Guevara, John Lennon y Andy Warhol.

PROYECTOS

MUSEO BIKOITZA

Museo bikoitza es un programa de intervenciones periódicas iniciado en este año 2018 a propuesta de Asier Mendizabal, el cual tiene como objetivo propiciar una serie de relecturas de la colección y/o del relato museográfico de San Telmo por parte de artistas del entorno más cercano. El invitado de esta primera edición es Ibon Aranberri quien en 2019 finalizará su trabajo, pasando este durante un año a formar parte del programa expositivo de San Telmo y posteriormente de sus colecciones.

Al mismo tiempo, durante 2019 se dará continuidad al programa con la invitación a un/a nueva/o artista.

EXPOSICIÓN PERMANENTE

Durante el año 2019 continuará el trabajo en la exposición permanente. Se elaborará un **audiovisual sobre el tema de pastoreo**, con la colaboración de Fermin Leizaola, y sobre esta temática se programarán diversas actividades en Semana Santa.

Asimismo, se va a realizar la segunda fase de la app **Second Canvas**, con una selección de la colección artística de la sala de Arte Vasco, en colaboración con Fundación Michelin.

Y se programarán las visitas gastronómicas **San Telmo pil-pilean**, en esta ocasión en relación con la exposición temporal sobre Arzak.

URGULL

En el Castillo de la Mota, la exposición sobre la historia de la ciudad, *Mirando a San Sebastián*, abrirá sus puertas nuevamente el 21 de marzo, como es habitual. Asimismo, se programarán actividades en los tres centros del monte, en colaboración con la Fundación Cristina Enea y el Servicio Bibliotecario.

EUSKERA

Esta línea transversal de trabajo tiene como objetivo fortalecer el euskara como patrimonio específico de nuestra cultura. Para ello el museo trabaja con Euskaragileak, el Servicio de Euskara del ayuntamiento, Bagera Euskaltzaleen Elkarte, euskaltegis y otras asociaciones.

CICLOS Y ACTIVIDADES

DESAFÍOS

Desde la reapertura de San Telmo como Museo de Sociedad se ha venido desarrollando una línea de programación Desafíos que tiene como objetivo impulsar proyectos e iniciativas que promuevan el diálogo, la reflexión y el debate sobre temas contemporáneos. Las cinco temáticas principales son Europa, género, sostenibilidad, interculturalidad y Derechos Humanos, pero el área está abierta a tratar otros temas de interés y este año, en concreto, se programarán actividades relacionadas con las exposiciones temporales sobre la muerte y los robots.

Con ese objetivo se han organizado espacios de encuentro a la vez que hemos sido plataforma de difusión y apoyo a iniciativas surgidas en organizaciones, instituciones y asociaciones de

nuestro entorno, con las que coincidimos en los objetivos, facilitando de ese modo la realización de proyectos y compartiendo conocimiento y recursos. Habitualmente trabajamos en colaboración con entidades y programas tanto de Donostia Kultura -Literaktum, Servicio Bibliotecario, Festival de Cine y DDHH- como externos: Globernance, Jakiunde, Cristina Enea, Festival de Cine, UPV / EHU, Departamento de Cooperación del Ayuntamiento, ONGs, Ankulegi, Baketik, entre otros.

-Sostenibilidad: Agora K2050. Con la fundación Cristina Enea. Sesiones mensuales de conferencias, mesas redondas y debates. Este programa tiene como objetivo plantear interrogantes sobre la realidad actual, nuestros modos de producir, de consumir y reproducirnos, asegurando la vida de las generaciones futuras y teniendo en cuenta los límites del planeta.

-Europa: Diálogos europeos. Con el Instituto de Gobernanza Democrática, Globernance. Se celebrarán varias sesiones a lo largo del año, teniendo como tema central los principales desafíos de la Unión Europea.

-Derechos Humanos. Durante el año se programarán actividades sobre diferentes aspectos relacionados con los Derechos Humanos, con el Departamento de Cooperación del Ayuntamiento de San Sebastián y con Baketik.

CICLO ELKANO: en 2019 el museo continuará con este ciclo en el año en que se cumple el aniversario del inicio del viaje alrededor del mundo que realizó Juan Sebastián Elcano, para contribuir a un mejor conocimiento de este hecho. Salvo excepciones, se programará una charla el primer martes de cada mes, a cargo de especialistas en temas como la navegación o la sociedad de la época, analizando las consecuencias hasta nuestros días, desde diferentes puntos de vista.

XVI JORNADAS DE ARQUEOLOGÍA Y 40 JORNADAS DE ETNOGRAFÍA, organizadas por la Sociedad de Ciencias Aranzadi en colaboración con el museo. Las primeras tendrán lugar en enero, ya que se ha buscado que coincidan con la exposición *El león de Arrikruz* (inaugurada en noviembre); las segundas se celebrarán, como es habitual, en noviembre.

OBRA DEL MES: el primer domingo de cada, esta actividad, organizada por la Asociación de Amigos del Museo San Telmo, trata en una conferencia alguna pieza del museo.

BIBLIOTECA Y CENTRO DE DOCUMENTACIÓN Y DEBATE: entre las actividades relacionadas con esta área del museo se encuentran las relativas a la colección de fotolibros de Gabriela Cendoya. Además se continuará con la catalogación y puesta a disposición del público de los libros de la colección. Asimismo, por quinto año consecutivo, el museo también se sumará a Arteliburu 21 en las jornadas sobre el libro de artista, en el mes de octubre.

EVENTOS Y FESTIVALES

DÍA INTERNACIONAL DE LOS MUSEOS: con motivo de la celebración, el 18 de mayo, del Día Internacional de los Museos, se programarán actividades especiales.

FESTIVALES: el verano es época de festivales en la ciudad, y también en el museo, que se convierte en uno de los escenarios de Heineken Jazzaldia, con charlas y conciertos; Quincena Musical, con la que colaboraremos estrechamente y más en este 80 aniversario; y Festival Internacional de Cine, con la proyección de películas.

SAN TELMO GAUAK: se organizan cada verano en el marco de las exposiciones temporales en curso. En 2019 se celebrarán dos, una en julio en torno a *Hello Robot* y la otra en agosto en torno a la exposición de 80 aniversario de la Quincena Musical. Como es habitual, habrá un horario especial de apertura y posibilidad de visitar las exposiciones gratuitamente, además de música y servicio de bar.

MUSIKAGILEAK: gracias a la colaboración que desde 2012 se ha establecido con esta asociación, el museo programa música de compositores/as o intérpretes vascos/as. Sin embargo, el proyecto es más ambicioso, ya que abarca el proceso de creación en su totalidad, desde la creación hasta la interpretación ante el público.

ACTIVIDADES DE MEDIACIÓN

TALLERES FAMILIARES

Los talleres familiares e infantiles son ya una línea de programación estable en el museo y su objetivo es que niños/as y familias trabajen juntos la creatividad partiendo de la exposición permanente o de las exposiciones temporales. El programa se pone en marcha con el curso escolar y finaliza en Semana Santa. Los talleres organizados hasta abril de 2019 ya se han presentado, pero se pueden subrayar los titulados *Gu mara-mara*, ya que se dirigen a una franja de edad que cuenta tradicionalmente con menor oferta (0-4 años). Tienen muy buena acogida y en 2019 también se programarán (los primeros en febrero)

VISITAS GUIADAS

El museo organiza diferentes tipos de visitas guiadas con el objetivo de permitir profundizar y lograr un mejor acercamiento a las exposiciones, así como facilitar diferentes lecturas.

-Plus 55 Kultur Gidak: dirigidas a público mayor de 55 años, permiten conocer la exposición permanente en su totalidad a través de seis itinerarios. Coincidiendo generalmente con el calendario escolar, se programan los martes (11:00 y 18:00) y son gratuitas. Las realizan guías también mayores de 55 años, y están organizadas en colaboración con la asociación Halduen Hitza.

-**En primera persona:** se trata de visitas guiadas “subjetivas”, tanto a la exposición permanente como a las temporales, ya que las llevan a cabo personas que son expertas en alguna área o que aportan un punto de vista personal sobre los temas que tratan las exposiciones. También son gratuitas.

-**Visitas guiadas programadas:** relacionadas con las exposiciones temporales, el museo organiza estas visitas que ya se han consolidado, los martes y los sábados (a las 11:00 en euskera y a las 18:00 en castellano). Son gratuitas con la entrada al museo.

OFERTA EDUCATIVA

En lo relativo al área de Educación, el museo seguirá trabajando sobre la oferta presentada en el curso 2017/18, aplicando mejoras que permitan garantizar un servicio de calidad.

Además de exposiciones, actividades, proyectos y eventos el museo mantiene su objetivo fundamental en la **creación, conservación y documentación del patrimonio**.

Y por ello, también es necesario recordar los planes en este trabajo más interno y menos visible:

INCREMENTO DE COLECCIONES: se plantea una política activa de adquisición de colecciones, **tanto de donación como de compra**, para lograr un fondo representativo de todos los ámbitos de la sociedad vasca.

CONSERVACIÓN / RESTAURACIÓN:

Se abordará como trabajo más importante, la conservación y restauración de la **colección de armas**. Los primeros pasos se han comenzado a dar ya con la investigación y restauración en 2018 de la **espada jineta**, datada en el siglo XV y pieza excepcional de la colección del museo. Se proseguirá con la colección de **arma blanca Broutin** y, paulatinamente, se abordará el resto de la colección (391 piezas).

También se va a dar continuidad a las actuaciones sobre la colección de **indumentaria textil y de fotografía**.

En Urgull se impulsarán los trabajos de conservación de la sala de los Graffitties y la colocación de diversos cañones recientemente restaurados en diferentes ámbitos exteriores de la fortaleza.

DOCUMENTACIÓN / INVESTIGACIÓN:

Se va a dar continuidad a la documentación de las colecciones de **fotografía y bellas artes ss XIX y XX** que se viene realizando estos últimos años.

Fruto de las investigaciones realizadas con motivo de dos exposiciones temporales producidas en el museo, se editarán las **publicaciones sobre la muerte y sobre indumentaria del siglo XVIII**. También se va a dar continuidad con nuevos títulos de la **colección Desafíos**.